

Real Unión Club S.A.D.

Euskara-plana



Egitura

1. Sarrera
2. Helburu orokorra eta zehatzak
3. Plana: ekintzak eta jarraipenerako adierazleak
 1. ZERBITZU-HIZKUNTZA
 2. LAN-HIZKUNTZA



1. Sarrera

Dokumentu honetan datozen bost urterako Real Unión Club S.A.D.-en euskararen erabileran aurrerapausoak emateko Administrazio Kontseiluak adostu dituen helburuak eta ekintzak jaso ditugu. Irungo Udalaren Kalean Bai planaren barruan egin dute Irungo Udaleko Euskara Arloak eta Real Unión Club S.A.D.-k elkarlanean, Siadeco Ikerketa Elkartearen laguntza teknikoarekin.

Plangintza hau diseinatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Erreferentziazko Marko Estandarraren (EME) egitura hartu da oinarritzat. Hortaz, bi ardatzen bueltan diseinatu da: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza.

Abiapuntu gisa Real Unión Club S.A.D.-ri plangintza hau osatzeko 2022an berariaz egindako diagnostikoa hartu da.

2. Helburu orokorra eta zehatzak

HELBURU OROKORRA

- Real Unión Club S.A.D.-en kanpo-harremanetan euskararen erabilera areagotzea, eta bezero, herritar eta bazkideei euskarazko zerbitzua bermatzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Real Unión Club S.A.D.-ren hizkuntza-irizpideak zehaztea, eta horiek barneko kideei zein kanpokoei jakinaraztea. Horrekin batera, irizpideak betetzeko neurriak eta baliabideak jartzea eta betetze-mailari jarraipena egitea eskatuko du, baita ere.
- Euskara-planaren inguruko adostasuna lortzea.
- Pixkanaka aurrerapausoak ematea, eta gizartearen erakunde elebidunaren irudia zabaltzea.

3. Plana: ekintzak eta jarraipenerako adierazleak

1. ARDATZA: Zerbitzu-hizkuntza

- 1.1. Entitatearen irudia
- 1.2. Bazkideekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

- 2.1. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak
- 2.2. Pertsonen kudeaketa
- 2.3. Kanpo-harremanak
- 2.4. Kudeaketa-sistema



3. Plana: ekintzak

1. ARDATZA: Zerbitzu-hizkuntza

1.1. Entitatearen irudia

1.1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak.

HELBURUA: Jendaurreko errotulazioa eta ikus-entzunezkoak euskaraz ere egotea; eta barne-errotulazioa, aldiz, gutxienez bi hizkuntzatan.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> Stadium Gal-en gaztelaniaz dauden barne-bulego eta instalazioetako errotuluak ele bietan jartzea, euskarari lehentasuna emanez: harmailletako errotuluak, segurtasun- eta osasun-mezuak, panelak eta bestelako errotulu batzuk. | <ul style="list-style-type: none"> Stadium Gal-en euskaraz edo bi hizkuntzatan jarri den errotulu kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> Stadium Gal-en ematen diren ahozko mezuak ele bietan izatea, euskarari lehentasuna emanez. | <ul style="list-style-type: none"> Stadium Gal-en euskaraz edo ele bietan ematen den ahozko mezuen kopurua. |
| <ul style="list-style-type: none"> Real Unión Club S.A.D.-eko langileen helbide elektroniko ofizialetako sinadurak bi hizkuntzatan ipintzea. | <ul style="list-style-type: none"> Sinadurak bi hizkuntzatan jarri diren ala ez eta zenbat. |

3. Plana: ekintzak

1. ARDATZA: Zerbitzu-hizkuntza

1.1. Entitatearen irudia

1.1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

HELBURUA: Marketinean, publizitatean eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera, era batera edo bestera, bermatzea.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> Herritar guztiengana edo publiko ahalik eta zabalenera iristeko helburuarekin entitateak berak kaleratzen dituen argitalpenak ele bietan izatea, eta bi hizkuntzatan baina berezita egin beharko balitz, neurriak hartzea gaztelaniazko bertsioan euskarazko laburpentxo bat sartzeko (gaztelaniazko kartelak, etab.). | <ul style="list-style-type: none"> Zenbat argitalpen egin diren ele bietan Gaztelaniazko bertsioan euskarazko laburpenak txertatzeko neurriak hartu diren ala ez. |
| <ul style="list-style-type: none"> Hedabideetara zabaldutako prentsa-oharrak bi hizkuntzatan bidaltzea eta aldi berean. | <ul style="list-style-type: none"> Bidali diren prentsa-oharretatik zenbat egin diren ele bietan. |
| <ul style="list-style-type: none"> Hedabideen bitartez zabaldutako iragarkiak eta publizitatean euskararen presentzia areagotzeko ahalegina egitea, eta horretarako neurriak aurreikustea komunikazio-planean. | <ul style="list-style-type: none"> Iragarkietan euskararen presentzia areagotzeko neurriak aurreikusi diren ala ez. |
| <ul style="list-style-type: none"> Real Unión Club S.A.D.-ek egiten dituen aurkezpen publikoetan eta prentsaurrekoetan euskararen presentzia bermatzea, eta hori nola egin zehazteko, hizkuntza-irizpideak idaztea. | <ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak idatzita dauden ala ez. |

3. Plana: ekintzak

1. ARDATZA: Zerbitzu-hizkuntza

1.1. Entitatearen irudia

1.1.3. Ingurune digitala

HELBURUA: Webgunean eta sare sozialetan edukiak euskaraz egotea

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Real Unión Club S.A.D.-ek www.realunionclub.eus domeinua jartzeko aukera aztertzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Aztertu den ala ez. |
| <ul style="list-style-type: none"> • www.realunionclub.com webguneko eduki guztia bi hizkuntzatan argitaratzea aldi berean eta gaztelaniazko bertsioaren modu bertsuan. | <ul style="list-style-type: none"> • Argitaratu den eduki kopurua eta horietatik zenbat argitaratu den bi hizkuntzatan. |
| <ul style="list-style-type: none"> • Sare sozialetan euskaraz eta gaztelaniaz maila berean egiteko, sare sozialen planifikazioan hizkuntza-irizpidea gehitzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Sare sozialen planifikazioan hizkuntza-irizpidea txertatu ote den. |


3. Plana: ekintzak

1. ARDATZA: Zerbitzu-hizkuntza

1.2. Bazkideekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak

1.2.1. Bazkideekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko zein idatzizko harremana zerbitzua emateko orduan

HELBURUA: Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.



JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

<ul style="list-style-type: none"> • Idatzizko zein ahozko harremanetarako protokoloa zehaztea, jendaurreko lanpostuetan jarduten dutenei jakinaraztea eta jarraipena egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Protokoloa idatzi den ala ez.
<ul style="list-style-type: none"> • Harrera egiten duen langilea trebatzea eta baliabideak eskaintzea euskarazko arta hobetzeko: idatzizko txantiloak, estrategiak, etab. 	<ul style="list-style-type: none"> • Langilea trebatzeko saiorik egin den, eta baliabideak eskaini zaizkion. • Langilearen balorazioa.
<ul style="list-style-type: none"> • Bazkide eta herritarrei Real Unión Club S.A.D.-ekiko harremana euskaraz ere bidera dezaketela jakinarazteko kanpaina egitea: aurkezpen ofiziala egitea, Stadium Gal-eko leihatilan oharrak jartzea... 	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpaina burutu den ala ez. • Euskaraz artatu den jende kopurua areagotu den ala ez.
<ul style="list-style-type: none"> • Harrera-gunean lan egiten duen langilearekin euskaraz egiten daitekeela jakiteko, identifikazio bereizgarri bat ipintzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Identifikazio bereizgarria egin den ala ez.
<ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz erantzun dezaketen langileen helbide elektronikoetako sinaduretan bereizgarri bat jartzea: "nahi baduzu, nirekin euskaraz egin dezakezu". 	<ul style="list-style-type: none"> • Bereizgarria jarri den ala ez.
<ul style="list-style-type: none"> • Bazkideei inoiz asebetetze-inkesta bidaltzen bazaie, euskarazko zerbitzuarekiko asebetetzea jasotzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Galdera hori jaso den ala ez.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

2.1. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak

2.1.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

HELBURUA: Euskararen erabilera areagotzea lan-eremuan.

- Lan-eremuan dagoen errotulazio oro (errotulazio txikiak, behin-behinekoak edo aldakorrak...) ele bietan jartzea, euskarari lehentasuna emanez.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- Errotulazio guztia ele bietan dagoen ala ez.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

2.1. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak

2.1.2. Barne-harremanak ahoz zein idatziz

HELBURUA: Ahozko zein idatzizko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- *Ostiraletako kafea euskaraz* ekimena martxa jartzea lankideen artean harreman informaletan euskaraz gehiago egiteko.
- Barne-bileretara sartzean edo lankideei telefonoa hartzean, lehen hitza euskaraz egitea.
- Lan-bileretako idatziak bi hizkuntzatan sortzea: deialdiak, gai-ordenak, aktak, txostenak...

- Ekimena martxan jarri den ala ez.
- Parte hartzen duten lankide kopurua.
- Lehen hitza euskaraz egiten duen lankide kopurua.
- Bi hizkuntzatan sortu den dokumentu kopurua.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

2.1. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak

2.1.4. Baliabide informatikoak

HELBURUA: Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa erabili nahi duenari erraztasunak jartzea.

- Baliabide informatikoak euskaraz jartzeko argibideak jasotzen dituen txostena sortzea, euskaraz jarri nahi dituenak erraztasunak izan ditzan.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- Txostena sortu den ala ez.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

2.2. Pertsonen kudeaketa

2.2.1. Pertsonen kudeaketa

HELBURUA: Giza baliabideen kudeaketan euskararen presentzia areagotzea.

- Lan-arloari lotutako dokumentu ofizialetan euskararen gutxieneko presentzia aztertzea: kontratuetan, nominetan, lanpostuei buruzko informazioa, etab.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- Azterketa egin den ala ez.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

2.2. Pertsonen kudeaketa

2.2.2. Laneko prestakuntza

HELBURUA: Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.

- Langileei prestakuntzaren bat proposatzerakoan, euskarazko eskaintza ote dagoen kontuan hartzea, eta baldin badago, euskarazkoa ere sustatzea, gutxienez, gaztelaniazkoaren maila berean.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- Euskarazko prestakuntzarik eskaini ote den.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

2.3. Kanpo-harremanak

2.3.1. Administrazioa

HELBURUA: Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.

- Administrazioarekiko idatzizko harremanak bi hizkuntzatan izan daitezten protokoloa zehaztea, eta jarraipena egitea.
- Administrazioarekiko ahozko harremanetan euskara txertatzeko ahaleginak egitea: lehen hitza euskaraz egitea, eta ahal den neurrian euskaraz egiten saiatzea.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- Protokoloa zehaztu den ala ez.
- Administrazioarekin izandako ahozko harremanetatik zenbat izan diren euskaraz.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

2.3. Kanpo-harremanak

2.3.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsone juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.

HELBURUA: Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- Real Unión Club S.A.D.-ek hornitzaile, finantza-erakunde... gisa dituen EAEko entitateei jakinaraztea euskaraz haiekin egiteko aukera.
- Erakunde pribatu batekin lehen aldiz hitz egitean, lehen hitza euskaraz egitea harremana ahozkoa denean, eta idatzizkoan, mezua ele bietan bidaltzea.

- Jakinarazpena egin den ala ez.
- Erakunde pribatu batekin lehen aldiz hitz egin denean, zenbatetan egin den lehen hitza euskaraz.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza

2.3. Kanpo-harremanak

2.3.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.

HELBURUA: Euskararen erabilera areagotzea gainerako kanpo-harremanetan.

- Babesleei Euskara Planaren berri ematea, eta harremana euskaraz bideratu dezaketela jakinaraztea.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- Jakinarazpenak egin diren ala ez.

3. Plana: ekintzak

2. ARDATZA: Lan-hizkuntza



2.4. Kudeaketa-sistema

HELBURUA: Euskararen kudeaketa entitatearen kudeaketa-sisteman integratzea: kudeaketa orokorrean, herritarrekiko zerbitzuan eta langileen kudeaketan.

JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

- Euskara Plana Real Unión Club S.A.D.-en Administrazio Kontseiluak onartzea, eta jarraipenerako egitura sortzea: Euskara Batzordea.
- Plan honen ekintzak urteko kudeaketa-plana idazterakoan kontuan hartzea.
- Real Unión Club S.A.D.-en hizkuntza-kudeaketarako irizpideak idaztea, eta jarraipenerako adierazleak zehaztea.
- Langileen hizkuntza-beharrak eta eskaerak kontuan hartzea, horiei erantzuna ematea eta planaren berrikuspenetan txertatzea.

- Plana onartu den ala ez
- Euskara Batzordea sortu den ala ez
- Kudeaketa-planean plan hau kontuan hartu den ala ez.
- Hizkuntza-irizpideak idatzi diren ala ez.
- Langileek eskaerak egin dituzten eta erantzun zaien.